



2020-05-11an realen instalatutako bertsioetan aldaketak

Informazio gehiago behar baduzu SAP Profesionalen Laguntza Zerbitzura jo.

BERTSIOAREN BERRIKUNTZAK

Profesional guztientzat

Idazkiak aurkeztu ziurtagiri-eskaera gabe

ZsignNet aplikazioa Id@zki Desktop (Izenperen sinadura-osagarria) aplikazioagatik ordezkatzeko egindako azken eguneratzearen ostean, izapidetzeko idazkiak aurkezteko sinadura eskatzerakoan, dokumentu bakoitzeko sinatzeko ziurtagiri-mota aukeratu behar da.

Idazkien aurkezteko izapidea arintzeko aldaketak egin dira, eta ondorioz, sistemak ez du dokumentu bakoitzeko ziurtagiria aukeratzeko eskatuko, baldin eta sesioak irauten duen bitartean ziurtagiri berdina denbora osoan sartuta badaukazu.

Hobekuntza handiagoa izan dadin PINa katigatuta edukitzea gomendatzen dizugu, era horretara, idazkia aurkezteko orduan erabiltzaileak ez du zertan denbora guztian PINa sartzen ibili behar.

Jakinarazpenak onartzea

Bulego judizialak jakinarazpenak onartzerakoan, baldin eta horiek erantsitako dokumentu asko bazituzten, akatsa gertatzen zen. Akatsa zuzendu da.

Izapidetzeko idazkiak aurkeztea

9 eranskin baino gehiago zituzten idazkiak aurkezterakoan akatsa gertatzen zen. Aplikazioak gehienez 15 eranskin onartuko ditu, gehiago bidaliz gero aplikazioak mezua erakutsiko du, eranskin gehiegi direla adieraziz.

Itzultako idazkien agiriak

Batzuetan, bulego judizialek sortutako itzultze-agirietan akatsa gertatzen zen eta itzultzeko arrazoiari dagokion eremuan "null" akatsa agertzen zen. Akatsa zuzendu da.

EKS Egiaztatze Kode Segurua

Sortutako agirietan ez da dokumentuei lotutako EKS agertuko. EKS dokumentuetan bakarrik agertuko da.

JustiziaSip-etik (Getxo) grabaketak ikusteko aukera

Hobekuntzak egin dira Getxoko bulego judizialean grabatzeko erabiltzen den aplikazioan, eta grabaketa horiek JustiziaSip-etik ikusteko zegoen arazoa konpondu da.